

Lore Festa, Enpresagintza Fakultateko ikasleen eguna ospatu da

2010/05/04

Apirilak 23an ospatu da Lore Festa, Enpresagintza Fakultateko ikasleen festa. Aurten gainera, fakultatearen 50urteurrena delata inoiz baino ospakizun politagoa eta potenteagoa izan da.

Parte-hartzaileak Oñatiko campus-eko ikasleak eta Bidasoako campus-ekoak gehi irakasle guztia izan ziren.

Goizean goiz hasi ziren ikasleek dena prestatzen, aurreko egunetan ere ibiliak ziren, ze gauza asko zituzten esku artean. Ekintza desberdinak egun guztian zehar, bazkaria barne. Goiza lasterketa edo kross-arekin hasi zen, ambiente polita sortu zen kirolarien artean. Herrian zehar ibili ziren megafonia eta guzti zarata pixkat ateratzen. Gero

dagoeneko futbolin zaleak prest ziren lehiaketatxo bat egiteko, eta fakultateko tabernan bertan bideo eta argazki emanaldi bat egon zen.

Han egon ziren barreak eta algarak orain dela urte askotako irudiak ikusiz.

Hamabiak inguruan ekitaldi kreatibo eta parte-hartzaile bat egon zen.

Guztien arten bideotxo bat grabatu zuten internet bidez zabaltzeko asmoz. Ehun persona baino gehiago hurbildu ziren aktibitate berezi honetara.

Esan beharra dago goiz guztian zehar ikasle eta irakasle asko eta asko mozorrotuta zebiltzala, 60. go hamarkadako itxurarekin.(argazkian ikusten den bezala).

Bazkaltzeko ordua ere iritzi zen eta 250 pertsona inguru bildu ginen bazkaltzen, giro aparta sortu zen. Bazkaria bukatzeaz zegoela karaokea jarri zen martxan. Esan

beharra dago karaokearen arrakasta izugarria izan zela, ikasle zein irakasle aldetik, eta pare bat ordu ia konturatu gabe joan ziren kantu eta dantza artean. Bitartean opari eta sai banaketak egin ziren, kross-arena, futbolin txapelketaren bikote irabazleari eta disfraz onenari.

Segidan eta batukada-rekin batera herrira hurbiltzea egin zen. Herrian ere jakin izan zuten festan genbiltzala eta asko eta asko hurbildu ziren batukada entzun eta ikustera.

Geroago eta gauean kontzertuekin bukatzeko, hiru kontzertu, bi talde oñatiarrak, Potemkin eta Malenkonia eta We are Standard getxotarrak.

Hemen herritar guztiak batu ziren Enpresagintza-ko festara giro bikaina sortuz.

Fakultatearen balorazioa ezin hobea izan da, bai parte-hartzeileen aldetik eta baita sortutako giro onagatik ere. Azpimarratzekoa bazkariko eta karaokean sortu zen giroa. Gure 50 urteurrena ospatzeko ikasleak direla ardatza kontutan hartuta, inportantea zen egun hau berezia izatea, eta iruditzen zaigu benetan lortu dugula.

